



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko martxoaren 6a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako 2007ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, jakiteko zein den genero ikuspegiaren aplikazioa gobernuko politikan, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hilabeteko epean neurriak har ditzan abeltzainei albaitaritza-ziurtagiriaren kostua itzul diezaion. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emaileari Assaf eta Lacaune arrazen esnea erabiltzeko baimenik eman harik eta Bruselak horri buruzko erabakia hartu arte. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioko Autobiako V. eta VI. zatiak aurrekontu orokorren kargura finantza ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertan behera utz ditzan Nafarroako Auzitegi Nagusiak 29/2003 Foru Dekretuko lau artikuluko baliogabetzeko eman zituen epaien aurka Auzitegi Gorenaren aitzinean paratutako helegiteak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aldebiko batzorde bat –Bertizaranako, Male-rrekako, Bortzirietako eta Baztango udalen eta Nafarroako Gobernuaren ordezkarien artekoa– sor dezan, Nafarroako iparraldearen ekonomia-, gizarte- eta industria-garapena bideratze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Uxueko santutegi-gotorlekura bisita gidatuak egiteko zerbitzu bat abiaraz dezan, obrak egiten diren bitartean. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har dezan Zangozako oinarritzko esku-aldeko kargu publikoen eta sendagileen eskaria, eta, hartara, zerbitzua berrezar dezan, azken hogeitun urteotan legez. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (12. or.).
- Adierazpen politikoa, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko zenbat lanpostu sortu diren Nafarroan mendekotasuna balioetsi eta onartu zaien pertsonei laguntzeko, Ana Figueras Castellano andreak egin (14. or.).
- Galdera, Gune Publikoak Arrazionalizatzeko Plan Estrategikoari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egin (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Baztan Ikastolari 2008ko aurrekontu-ekitaldian, kontzeptu guztiengatik, emandako diruari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (15. or.).
- Galdera, Iberbanda enpresak Nafarroa iparraldean dituen arazoei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (16. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak, beste departamentu batzuekin batera, gure erkidegoko turismo sektorea sustatze aldera abiarazitako ekimenei eta ekintzei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (17. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua krisiari aurre egite aldera turismo sektoreari dagokionez hartzen ari den neurriei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (17. or.).
- Galdera, Irabia ikastetxeak beste ikastetxe bat eraikitzeari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egin (18. or.).
- Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari 255/2007 Foru Dekretuari jarraikiz kontratuen arloan transferitu beharreko eskumenei buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egin (19. or.).
- Galdera, Legegintzaldi honen hasieratik hona % 1 kulturala programara aurkeztutako jarduera-proiektuei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egin (20. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzaren Ebazpena, 2009ko martxoaren 2koa, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisitak eta lan bilerak egiteko moduaren gaineko arauak, 2008ko martxoaren 10eko Lehendakaritzaren Ebazpenaren bidez onetsiak, aldatzen dituen (21. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Funtzionarioen Opor, Lizentzia eta Baimenen Erregelamendua (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 2007ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza birrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2008ko irailaren 8an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2007ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Comptos Ganberak txosten bat eman du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 156. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako 2007ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko jardunbidez bideratzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako 2007ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 110. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakotan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru legearen proiektuaren bidez, aipatutako 8/1988 Foru Legearen 115. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2007ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2007ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 156. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egin dira Nafarroako 2007ko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 113., 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Haien edukia ondoko agiri eta euskarrietan bildu da:

Paperezko argitalpena, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuen atal adierazgarrienak laburbildurik dituen. Sozietate publikoen kontuen laburpena dakarren agiria ere erantsia dago.

Euskarri digital bat, entitate eta sozietate publikoen kontuak luze eta zabal jasotzen dituen, haien auditoriako txostenekin batera. Euskarri horretan sartuta daude, halaber, aurrekontuetako programen memoriak.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, jakiteko zein den genero ikuspegiaren aplikazioa gobernuko politikan.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko jabeldura, jakiteko zein den genero ikuspegiaren aplikazioa gobernuko politikan.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 179. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Emakumeen Aurrerapen Munduan izeneko txostena bi urtetik behin argitaratzen da, genero berdintasunari buruzko aurrerapenak sakonki aztertze aldera. Gaur egungo krisi globala dela eta, UNIFEMen 2008/2009ko txostena erabat egokia da; izan ere, agerian uzten ditu munduan oraindik ere gertatzen diren gizonen eta emakumeen arteko desoreka handiak, bai eta genero berdintasunaren aldeko apustua egiteko beharra, garapen- eta hazkunde-eredua aldatzeko estrategia global gisa. Une honetan, zeinetan gobernuaren kezka nagusia baita sistemari likidezia ematea eta hazkundea eta garapena berpiztea, genero berdintasunaren arloan atzera egiteko arriskua handiagoa da, berdintasunaren helburua agenda politikoaren erdigunean dagoela ez bada bermatzen.

Krisia ezin da inoiz aitzakia izan konponbide partzialak aplikatzeko; hain zuzen, oraintxe egin behar dira urrats gehiago gizarte berdina lortze aldera, non gizonen eta emakumeen bizitzaren arlo guztietan dituzten beharrizanak errespetatuko diren eta familiaren arreta eta zaintzaren arloan ardurakidetzat sustatu ere bai.

Agerikoa bada ere neurriak hartu behar direla enpleguaren sorrera bultzatzeko, ezin diogu kontratazioaren balantzari gizonen alde eragin. Zenbait elkarte ohartarazi dute Krisiaren Aurkako Planaren bidez bilatzen den enpleguaren sorrerak baduela emakumeentzat negatiboa den genero-joera; izan ere, enplegu gehienak eraikuntzaren arlokoak dira, eta sektore horretan emakumeek ez dute % 10 ere egiten.

Adi egon behar dugu "gizonezko hornitzaile-emakumezko zaintzaile" moduko eredu patriarkal eta sexisten balizko suspertzea dela eta, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eredu baten orde. Neurri berean babestu behar da gizonen eta emakumeen enplegua.

Gaur egun, eredu ekonomiko berriaren beharra planteatu denean, Nafarroako Gobernuak Moderna Plana aurkeztu du. Denontzako plana izanen dela diote; emakumeentzat ere izatea espero dugu. Azalpen guztiak emateko erabiltzen den hizkera sexista alde batera utzita, da nabarmentzekoa da goi mailako adituen batzordearen osaketa; izan ere, 33 adituetatik soilik 3 dira emakumezkoak. Zaila da sinestea ez dagoela emakume gehiagorik adituen talde horretan egon daitkeenik. Galdetu beharko litzateke ea Gobernuari aholku emateko hor dauden 33 pertsona horiek generoaren eta aukera berdintasunaren arloko prestakuntzarik ba ote duten. Gobernu honek emakumeekiko agertzen duen ikusezintasunari buruzko beste datu bat emateagatik, esanen dugu krisiaren aurkako planaren jarraipen batzordeko kide guztiak gizonen direla: 11 gizonen

ko, hain zuzen. Ezin diogu galdetzeari utzi nola bermatuko den krisialditik ateratzeko bide orekatu bat bi sexuentzat, batzordeak osatzea bezalako kontu xumeetan ere ez bada kontuan hartzen generoaren ikuspegia. Bestalde, ikuspegi hori ez da ezer sektorial gisa hartu behar. Nafarroa Baik zeharkakotasunaren beharra defendatzen du; izan ere, Gobernuak sostengatzen duten taldeek ezazugarri hori beren adierazpenetan aldarrikatzen

badute ere, eguneroko jardunean ahaztuta dutela dirudi.

Hori dela eta, parlamentu-talde honek jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehedakariari, azal dezan zein den genero ikuspegiaren aplikazioa gobernuko politikan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hilabeteko epean neurriak har ditzan abeltzainei albaitaritzaz-ziurtagiriaren kostua itzul diezaien.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita hilabeteko epean neurriak har ditzan abeltzainei albaitaritzaz-ziurtagiriaren kostua itzul diezaien.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2008ko abuztuaren 8ko 191. Estatu Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Audientzia Nazionaleko iragarki bat, zeinaren bidez erabaki zen bertan behera uztea Lehendakariaren urriaren 5eko 2893/2007 Aginduaren indarraldia. Horrek ekarri zuen berriro indarrean sartzeko giza kontsumorako

hiltegi eramatean diren behi, ardi eta ahuntz azientak beren albaitaritzaz-ziurtagiriekin eramateko betebeharra.

Jakinaenez, albaitaritzaz-ziurtagiria, abereak eramateko gida eta agiriak emateagatik tasak kobratzea, gobernu zentralak ezarritako zerbait da, entzefalopatia espongiformearen –behi-azientetan behin eroen gaixotasuna bezala ezagutzen dena– lehen kasuak atzeman zirenean. Behin eroen gaixotasuna behi-azienten nerbio sistema zentralerako eritasun degeneratibo bat da, eta bere ezaugarria da nerbioetako sintomak agertzen direla abere helduetan, animalia pixkanaka heriotzara eramanez arte. Esan behar da Europar Batasun osoan Espainia dela albaitaritzaz-ziurtagiri hori eskatzen den toki bakarra.

2007ko urriaren 9an argitaratu zen Nafarroako Gobernuaren Larrialdi Plana abeltzaintzako sektorearen krisia dela-eta. Abeltzaintzako sektorearen krisiari aurre egiteko larrialdi plan horrek 18 neurri jasotzen ditu, bost multzotan banatuta. Bosgarren multzoa da beste administrazio eta entitate pribatuekin mintzatzeko eta bitartekaritzaz egiteko neurri buruzkoa, eta bertan jasotzen da Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak administrazio zentralari eginiko eskaera, horrek abeltzaintzari laguntzeko zeharkako neurriak har ditzan Estatuaren eskumenekoak diren gaietan, hala nola Nekazaritzako Politika Bateratuko laguntzak aurreratzea, albaitaritzaz-ziurtagiria kentzea eta Nekazarien Gizarte Segurantzako kuota salbuestea edo kuota horiek murriztea.

Abeltzaintzako sektorearen egoera larria ikusirik, Nafarroa Baik uste du beharrezkoa dela Nafarroa

roako Gobernuaren Abeltzaintzako sektorearen krisiari aurre egiteko Larrialdi Plana betetzea, albaitaritzaz-ziurtagiriari dagokionez. Elikagaien segurtasuna bermatuta dago Nafarroan, eta albaitaritzaz-ziurtagiria kostu gehigarri bat da sektorearentzat.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean beharrekizkoak diren neurriak har ditzan abeltzainei albaitaritzaz-ziurtagiriak dakarren kostua itzultzeko.

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emaileari Assaf eta Lacaune arrazen esnea erabiltzeko baimenik eman harik eta Bruselak horri buruzko erabakia hartu arte.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez diezaion Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emaileari Assaf eta Lacaune arrazen esnea erabiltzeko baimenik eman harik eta Bruselak horri buruzko erabakia hartu arte.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2007ko martxoaren 16an, Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emaileak

onetsi zuen aldatzea Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deiturari eta haren Kontseilu Arau-emaileari buruzko Erregelamendua onesten duen 1991ko martxoaren 4ko Foru Aginduaren 5. artikulua, eta, honela, kanpokoak eta ustiapen intentsibokoak diren Assaf eta Lacaune ardi-arraza esnearen erabilera baimentzea Erronkariko gazta egiteko.

2008ko otsailaren 4an, Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emaileak eskatu zuen jatorrizko deituraren baldintza-orriak aldatzeko, eta bidezkoa da eskaera izapidetzea, Europako nekazaritzako produktuen eta elikagaien adierazpen geografikoak eta jatorrizko deiturak babesteari buruz Europako Kontseiluak martxoaren 20an onetsitako 510/2006/EE Erregelamenduari 9.2 artikuluari eta uztailearen 27ko 1069/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako prozedurari jarraikiz.

2008ko uztailearen 17ko 172. Estatuko Aldizkari Ofizialean agertu zen Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren iragarkia, zeinaren bidez jendaurrean jartzen da jatorrizko deitura babestuen baldintza-orriak aldatzeko eskaera eta haren agiri bakarra, Europako jatorrizko deitura babestuen eta adierazpen geografiko babestuen erregistroan izen emateko eskaerak izapidetzeko prozedura arautzen duen uztailearen 27ko 1069/1007 Errege Dekretuko 6. artikuluan ezarritakoa betetze aldera.

Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako zuzendari nagusiaren urriaren 10eko 1731/2008 Ebazpenaren bidez onetsi zen "Erronkari" Jatorrizko Deitura Babestuen baldintza agiriaren aldaketa.

Aldaketak Nafarroan eta Madrilen onetsiak izan badira ere, beharrezkoa da Bruselan ere onestea, balioa izan dezaten. Gaur egun, ez da ziurra aldaketa horiek Bruselan onestea.

Itxura denez, dokumentazioa Europako Parlamentuan dago, baina oraindik ez dira aldaketak onetsi. Hala ere, Nafarroan Assaf eta Lacaune kanpoko arrazen esnea erabiltzen ari dira Erronkari Jatorrizko Deiturako gazta egiteko, horrek dakarren arriskuarekin, azkenean gerta baitaiteke Bruselan ez onestea aldaketa.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez diezaien Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emaileari eta gaztandegiei Assaf eta Lacaune arrazen esnea erabiltzeko baimenik eman harik eta Bruselako legebiltzarrak horri jatorrizko deitura horren baldintza-orrien aldaketen gaineko erabakia hartu arte.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioko Autobiako V. eta VI. zatiak aurrekontu orokorren kargura finantza ditzan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Pirinioko Autobiako V. eta VI. zatiak aurrekontu orokorren kargura finantza ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak erabaki du itzaleko bidesariaren sistema erabiltzea Pirinioko Autobiako azken bi bideuneak finantzatzeko. Finantzaketa eredu hori erabili zen Donejakue Bideko Autobia egiteko, eta Nafarroako aurrekontu orokorren bidezko finantzaketa zuzena baino garestiagoa da; gainera, ez da hain gardena.

Comptos Ganberak Donejakue bideko autobia-
ren ondoriozko etorkizuneko gastuei buruz 2007an egin zuen txostenetik ondorioztatzen da, gure ustez, itzaleko bidesariaren sistema aurrekontu bidezko finantzaketa zuzena baino askoz okerragoa dela, bai duen kostuagatik, bai kontrol publiko eraginkorra gauzatzeko zailtasunagatik.

Hori dela-eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Pirinioko Autobiako V. eta VI. bideuneak aurrekontu orokorren kargura finantza ditzan, eta, ondorioz, itzaleko bidesariaren sistema bazter utz dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bertan behera utz ditzan Nafarroako Auzitegi Nagusiak 29/2003 Foru Dekretuko lau artikulua baliogabetzeko eman zituen epaien aurka Auzitegi Gorenaren aitzinean paratutako helegiteak.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bertan behera utz ditzan Nafarroako Auzitegi Nagusiak 29/2003 Foru Dekretuko lau artikulua baliogabetzeko eman zituen epaien aurka Auzitegi Gorenaren aitzinean paratutako helegiteak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuak Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dezan.

Zioen azalpena

2000. urtean Nafarroako Gobernuak Euskararen Foru Legea Administrazioaren arloan garatzen zuen Foru Dekretu berria jarri zuen indarrean: 372/2000 Foru Dekretua, abenduaren 11koa. Horren ondorioz, bi Ekintza Plan onartu zituen, bat Eremu Mistorako eta bertzea Eremu Euskaldunerako. Arau horren guztiaren kontra Nafarroako toki entitate eta gizarte erakunde desberdinek helegiteak paratu zituzten ⁽¹⁾. Lehen epaiak 2002 urtearen bukaera aldean eman ziren ezagutzera. Baina Nafarroako Gobernuak Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak (NJANek) baliogabetutako 372/2000 Foru Dekretuaren eduki berbera zuen bertze dekretu bat onartu zuen: 29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10koa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena.

Joan den Legegintzaldian Nafarroako Parlamentuak mozio bat onartu zuen 29/2003 Foru Dekretua berraztertu eta, horren ordez, Euskararen Foru Legeak ezarritakoak osoki garatzera zuzendutako araua indarrean para zezala.

Legegintzaldi honen hasieran Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bidez, hizkuntza politika murrizketa latzen garaietatik urrundu eta bertze molde bat emateko asmoa adierazi zuen. Hezkuntza kontseilariak, asmo horren erakusle gisa, Euskarabidearen sorrera eta D ereduaren iruñerriko eremu ez euskalduneko bi udalerritarara zabaldu izana aipatu ditu behin baino gehiagotan.

(1) – 372/2000 Foru Dekretua, abenduaren 11koa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena (2001eko urtarrilaren 5eko 3. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean [NAOn] argitaratua. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko [NJANeko] Administrazio-azitegiatarako Aretoaren Atal Bakarrak 2002ko azaroaren 23an emandako 1109/2002 epaiak baliogabetua. Baliogabetuta geratu eta ondoan, Nafarroako Gobernuak eduki bereko 29/2003 Foru Dekretua paratu zuen indarrean, beheago zehaztu bezala).

– 2001eko urtarrilaren 8ko Erabakia, Nafarroako Gobernuak hartua, "Euskararen erabilerrari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko Ekintza-plana onesten duena" (2001eko urtarrilaren 19ko 9. zenbakiko NAOn argitaratua, NJANeko Administrazio-azitegiatarako Aretoaren Atal Bakarrak 2003ko martxoaren 5ean emandako 307/2003 epaiak baliogabetua).

– 2001eko otsailaren 5eko Erabakia, Nafarroako Gobernuak hartua, "Euskararen erabilerrari buruzko araudia eremu euskaldunetan aplikatzeko Ekintza-plana onesten duena" (2001eko otsailaren 14ko 21. zenbakiko NAOn argitaratua, NJANeko Administrazio-azitegiatarako Aretoaren Atal Bakarrak 2002ko utztailaren 18an emandako 700/2002 epaiak baliogabetua).

– 29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena (2003ko otsailaren 12ko 19. zenbakiko NAOn argitaratua, NJANek emandako hamabi epaiak 15.1, 18.3, 21.1 y 23.1 artikulua baliogabetua. Epai horietako berrienetakoak honako hauek dira: 1221/2004 zenbakiko Epaiak, abenduaren 16koa eta 1053/2004 zenbakiko Epaiak, urriaren 29koa).

Hala eta guztiz ere, Nafarroako hizkuntza politikarik beltzeneko garaiko araua, Euskararen Foru Legearen interpretaziorik murriztaileena ekarri zuena, oraindik orain indarrean da. 29/2003 Foru Dekretua oraindik dago indarrean Nafarroako Gobernuak NJANek emandako baliogabetzeko epaiak kontuan hartu beharrean Auzitegi Gorenaren aitzinera jo baitu, epai haien irmotasuna galarriz.

NJANek 29/2003 Foru Dekretuaren 15.1, 18.3, 21.1 eta 23.1 artikulua baliogabetu zituen hamabi epaietan, funtsean Foru Dekretuak Euskararen Foru Legeak ezarritakoa murrizten baitzuen nabarmen: «(...) en la práctica se está produciendo a través del reglamento una deshabilitación del rango que la Ley atribuye a esta lengua». Horrelaxe adierazi zuen NJANek bere 1221/2004 epaiaren, abenduaren 16koaren, 7. oinarrian.

29/2003 Foru Dekretuak (bere aurrekoa zen 372/2000 Foru Dekretuak bezala) bere artikuluetan Euskararen Foru Legeak ezarritako helburuen aurka jotzen du. Izan ere, arau murriztailetzat jotzeagatik Euskaltzaindiak bere gaitzespen ofiziala egin zuen ⁽²⁾; María Jesús Aranda Lasheras Nafarroako Ararteko andrea zenak Euskararen Foru Legeak jasotzen duen elebitasun instituzionala betetzeko gomendio ezberdinak egin zizkien Nafarroako Gobernuari eta Iruñeko Udalari; Nafarroako toki entitate desberdinek euren ezadostasuna agertu zuten (batzuetan indarrean jarritako arau urritzaitleen kontrako helegite gisa); gizarte erakunde anitz (Oinarriak, Kontseilua, Behatokia, Euskal Herrian Euskaraz, Euskara Kultur Elkargoa,...) arau murriztailearen kontra agertu ziren.

Nazioartean ere, Hizkuntza Gutxituetarako Bulego Europarra (European Bureau for Lesser Used Languages – EBLUL) erakundeak bitan gaitzetsi zuen Nafarroako hizkuntz politika instituzionala ⁽³⁾, Nafarroako Gobernuarena eta Iruñeko Udalarena. Izan ere, Nafarroa Europaren kontraeredu gisa definitzera iritsi zen EBLULeko presidentea: «the first substantial regression of policies for regional minority languages in EU Member State» ⁽⁴⁾.

29/2003 Foru Dekretuaren artikuluen azken ondorioa Euskararen Legeak jasotakoa betetzea ezinezkoa bihurtzea da eta lege hark berak zedarritutako eremu mistoa, praktikan eremu ez euskalduna bihurtzea, Euskararen Foru Legeak berak eremu mistorako zein eremu euskaldunerako xedatutakoa urratuz.

2005eko irailaren 21ean Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak gomendio batzuk eman zituen Nafarroako Gobernuaren euskararako hizkuntza politikaren gainean ⁽⁵⁾. Horietako bat: «contemplan la posibilidad de aplicar una forma apropiada de la protección que brinda la Parte III a la lengua vasca en la zona mixta, tal como define la legislación de Navarra» ⁽⁶⁾. Beraz, Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen gomendioa betetzeak ere halaxe eskatzen duelako, Nafarroa Bai parlamentu-taldek ezinbertzekoa ikusten du Nafarroako Gobernuak NJANek 29/2003 Foru Dekretuaren lau artikulua baliogabetzeko eman zituen epaien kontrako helegiteak bertan behera uztea.

Hori horrela, honako hau da Nafarroa Baik aurkeztu duen mozioa:

(2) Euskaltzaindia (2001). "Euskararen egoera Nafarroan: Euskaltzaindiaren adierazpena". Euskera (separata), 46. liburukia (2. aldía).

(3) www.eblul.org. Basque resolution, 03/02/2001 eta 13/09/2003, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren hizkuntz politikak gaitzesten dituztenak.

(4) «Lehenbiziko atzerapen garbia erregioetako gutxiengoaren hizkuntzen politiketan Europako Batasuneko kide den estatu batean», www.eurolang.net/news, 2001eko abendua.

(5) Hori dena honako txosten honetan jaso du Europako Kontseilua: Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias. Aplicación de la Carta en España. Eta haren barnean honako bi atalok daude: "A. Informe del Comité de Expertos sobre la Carta" eta "B. Recomendación del Comité de Ministros del Consejo de Europa sobre la aplicación de la Carta. Council of Europe. ECRML (2005) Txosten osoa ikusteko:

<http://www.coe.int/t/le/legal_affairs/local_and_regional_democracy/regional_or_minority_languages/2_monitoring/2.3_Committee_of_Experts%27_Reports/Spain_1st_report_esp.pdf>

(6) Council of Europe. ECRML (2005), 177.or.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 29/2003 Foru Dekretuaren, otsailaren 10ekoaren, lau artikuluko baliogabetzeko eman zituen epaien kontra Auzitegi Gorenaren aitzinean paratutako helegiteak bertan behera utz ditzala.

2. Nafarroak Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautuko duen Foru Dekretu berria egin dezala Euskararen Foru Legearen ezinbesteko helburuok erdiestera zuzenduta:

– Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.

– Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.

Iruñean, 2009ko otsailaren 26an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alde biko batzorde bat –Bertizaranako, Malerrekako, Bortzirietako eta Baztango udalen eta Nafarroako Gobernuaren ordezkarien artekoa– sor dezan, Nafarroako iparraldearen ekonomia-, gizarte- eta industria-garapena bideratze aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alde biko batzorde bat –Bertizaranako, Malerrekako, Bortzirietako eta Baztango udalen eta Nafarroako Gobernuaren ordezkarien artekoa– sor dezan, Nafarroako iparraldearen ekonomia-, gizarte- eta industria-garapena bideratze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkez-

tu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroa erkidego anitza eta askotarikoa da, eta bertan errealitate geografiko-oroografiko desberdinak daude. Horren eraginez, beharizanak, arlo askotan, ez dira berberak eskualde eta udalerri desberdinetan. Hori dela eta, beharrezkoa da errealitate bakoitzera egokitutako neurri zehatzak ezartzea, errealitate horien aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortze aldera, are gehiegi gaur egun bizi dugun krisi egoeran.

Nafarroako iparraldeak ez dio krisiari ihes egin eta, hori dela eta, eskualde horretako udaleko arduradunek adierazten duten moduan, inoiz baino beharrezkoagoa da irtenbide zehatzak bilatzea eskualde horietako berezko idiosinkrasiarekin zerkusia duten arazoak konpontzeko.

Arazo larrienetako bat da industria- eta etxebizitza-erabilerarako lurzatiak gaitzeko aukera; izan ere, herrigune gehienek eta udalerrak zabaldu ahal izateko eremuek berezko arazo bat dute, eta da uholde-eremu gisa kalifikatuta daudela. Eremu horiek gaitzeko, bertan jarduteko eta eraikitzeke dauden arazoak larritu egin dezakete gaur egungo krisi egoera mendialdean, eta, ondorioz, krisiari aurre egiteko erakundeek diseinatzen dituzten ekimenetan parte hartzeko aukerak mugatzen dira.

Gaur egun, uholde-eremu gisa kalifikatutako lurzatieen ezaugarriak eta lurzatiak gaitzeko neurri zuzentzaileak zehaztu eta eremu horietan bizi direnen segurtasun neurriak hobetzeari dagokie-nez, udalek kudeatu behar dituzte prozesu guzti-ak, kasu honetan, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin, eta eskuratu behar dituzte, halaber, Nafarroako Gobernuako departamentuaren baime-nak, zeinak, jakina denez, ez baitu ibaiei buruzko eskumenik. Horrela, udalek beren kabuz egin behar diete aurre alderdi askotako prozesu konpli-katuei, eta, askotan, guztiek arazo berak izaten dituzte, eta, horrenbestez, beharrezkoa eta Nafa-rroako Gobernuaren eta eskualde horretako udal arduradunen interesak modu eraginkorrean koordi-natzeko aukera bat izatea, Kantauriko Konfedera-zio Hidrografikoaren aurrean baliatu beharreko estrategia adostu eta koordinatze aldera.

Hori dela eta, eta egoera horri irtenbidea emateko, modu larrian mugatzen baitu mendialdeko garapena eta bere etorkizuna hipotekatzen baitu, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du hilabeteko epean aldebiko batzorde bat –Bertizaranako, Malerrekako, Bortzi-rietako eta Baztango udalen eta Nafarroako Gobernuaren ordezkarien artekoa– sor dezan, lur-zorua gaitzeko dituzten arazo komunak aztertu eta ekonomia-, gizarte- eta industria-garapena bidera-tzeko estrategia eta neurri eraginkorrak diseinatze aldera.

Iruñean, 2009ko otsailaren 26an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Uxueko san-tutegi-gotorlekura bisita gidatuak egiteko zerbitzu bat abiaraz dezan, obrak egiten diren bitartean.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parla-mentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita Uxu-eko santutegi-gotorlekura bisita gidatuak egiteko zerbitzu bat abiaraz dezan, obrak egiten diren bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzen-ketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekite-ko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafa-rro Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltza-

rreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkez-tu dute, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gaur egun, Uxueko santutegi-gotorlekuan, zein-aren jabetza Elizak erregistratu baitu duela gutxi, birmoldatze-lan handiak egiten ari dira, funts publikoek ordainduta. Obretako behin-behineko egoera hori bi urtez luzatuko da, eta eragin handia izaten ari da Uxuera santutegi-gotorlekua ikustera joaten diren bisitariei eta turistei zerbitzu ematera bideratutako sektore ekonomikoan, santutegia bisitatzeko aukerarik ez baitago orain.

Horrekin lotuta, bereziki gaur egun bizi duguna bezalako krisi egoera batean, erakundeek neurri-ak har ditzakete Uxueko herrian eragina duen behin-behineko egoera horri konponbidea bilatze-ko. Horretarako Gasteizko katedraleko lanen pro-zesuan erabili ziren estrategia bera baliatu deza-kete; izan ere, han obrak bisitatzeko aukera dago, Irekita eta obratan izeneko programa baten bidez, eta emaitzak oso onak izaten ari dira.

Hori dela eta, eta kontuan hartuta bereziki krisi egoera honetan erakundeek aukera eta betebeh-arra dutela beharrezkoak diren neurriak ezartzeko,

herritarrei beren intereseko tokiak bisitatzeko aukera emate aldera eta herrietako jarduera ekonomikoa mantentze aldera, honako erabaki proposamena aurkeztu du, batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen abiaraz dezan

Uxueko santutegi-gotorlekura bisita gidatuak egiteko zerbitzu bat, obrak egiten diren bitartean, santutegia bisitatzeko aukera emateko eta sustatzeko zerbitzu hori ezagutarazita.

Iruñean, 2009ko otsailaren 26an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har dezan Zangozako oinarrizko eskualdeko kargu publikoen eta sendagileen eskaria, eta, hartara, zerbitzua berrezar dezan, azken hogeitun urteotan legez.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aintzat har dezan Zangozako oinarrizko eskualdeko kargu publikoen eta sendagileen eskaria, eta, hartara, zerbitzua berrezar dezan, azken hogeitun urteotan legez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Jakin dugunez, Zangozako eskualdean arazoak daude medikuen arreta dela-eta; izan ere, Osasun Departamentuak erabaki du gauetan mediku bakarra egonen dela larrialdi zerbitzuko guardietan eta ez bi, azken 20 urteotan bezala.

Medikuek salatu dute erabaki horrek zenbait arazo sor ditzakeela 52 herritan banatutako 13.000 biztanle dituen eskualde batean.

Hala ere, Osasun Departamentuak erabaki du bere irizpidea mantentzea eta, bere ustez, azken hilabeteotako estatistikak ikusita, mediku bakarra nahikoa da 22:00etatik 08:00etara larrialdiak artatzeko. Osasun Departamentuak baliatu nahi du Landa Eremuko Larrialdietarako Plan berria abian jartzea eta profesional berriak sartzea, zerbitzua erabat murrizteko.

Eskualde horretako udal guztiek, bai eta auzo-elduen elkarte eta elkarte sozial guztiek arbuatu dute departamentuak hartutako erabaki erabat ekonomizista, zalantzarik gabe zerbitzuen galera eta osasun arloko arretaren kalitatea okerragoa izatea ekarriko baitu landa eremuetara, eta ez dakigu horrek zer ondorio izan ditzakeen.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aintzat har dezan Zangozako oinarrizko eskualdeko kargu publikoen eta sendagileen eskaria, eta, hartara, zerbitzua berrezar dezan, azken hogeitun urteotan legez.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du interesdunen eta egoera eza-gutzen dutenen batzorde bat osa dezan –alkateekin, medikuekin eta Osasun Departamentuarekin–, eskualde horretan eman eta errespetatu behar den zerbitzuaren baldintzak ezartze aldera.

Iruñean, 2009ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Adierazpen politikoa, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

“1. Nafarroako Parlamentuak omendu nahi ditu historian zehar gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna defendatzeko lana, ahalegina eta borroka egin duten mundu osoko emakumeak.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du genero ikuspegia aplikatzeko bere jardue-
ra guztietan, bai eta gizonezkoen eta emakumez-
koen arteko berdintasuna sustatzen jarraitzekoa ere.

3. Nafarroako Parlamentuak genero indarkeria gizartetik desagertarazteko laguntzen duten politi-
kak bultzatzen jarraitzeko eta, gizonezkoen eta
emakumezkoen arteko berdintasun formalaz gain,
berdintasun errealaren printzipioa sustatzeko
borondatea agertzen du.

4. Nafarroako Parlamentuak bere kezka ager-
tzen du bizi dugun krisi egoera dela-eta, eta Foru
Komunitateko erakunde guztiak bultzatzen ditu
ekintza positiboak abiaraz ditzaten emakumeek
lan merkatuan duten partaidetza mantentzeko eta
handitzeko, bereziki sektore estrategikoetan, eta,
horretarako, enplegurako prestakuntza eta indarra

hartzen ari diren sektore ekonomikoetako autoen-
plegua bezalako tresnak erabil ditzaten.

5. Nafarroako Parlamentuak uste du funtsez-
koa dela emakumezkoen partaidetza sustatzea
I+G+Baren arloko proiektuetan, bai eta emakume-
ek parte hartzea eta nabarmentzea informazioa-
ren eta teknologia berrien gizartean.

6. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa har-
tzen du borroka egiten jarraitzeko, era aktiboan,
gaur egun gizonezkoen eta emakumezkoen arte-
ko dagoen desberdintasunik krudelenaren aurka:
emakumeen aurkako indarkeria.

7. Nafarroako Parlamentuak bultzatzen ditu
Foru Komunitateko eta Estatuko administrazio
publikoak era koordinatuan lan egin dezaten eta
ahal dituzten elkarrizketa- eta kolaborazio-tresna
guztiak balia ditzaten, Nafarroan egiazko errefe-
rentea izan dadin gizonezkoen eta emakumezko-
en arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lor-
tzeari dagokionez.”

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zenbat lanpostu sortu diren Nafarroan mendekotasuna balioetsi eta onartu zaien pertsoneri laguntzeko.**ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zenbat lanpostu sortu diren Nafarroan mendekotasuna balioetsi eta onartu zaien pertsoneri laguntzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galde-

ra hau egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

14.745 nafarrek aitortua dute beren mendekotasun gradua. Onuradunek 2007-2008 urteetan jasotako dirulaguntzek 57 milioi euro egiten dute.

Laguntza horiek erabili dira familia inguruneko zaintzarako, kanpoko pertsona edo enpresa bat kontratatzeke eta etxez etxeko laguntzarako.

Mendekotasunari buruzko legearen 15. artikuluko katalogoan zenbait zerbitzu aipatzen dira, hala nola etxez etxeko laguntza, etxeko beharriaz netarako laguntza, zainketa pertsonalak, eta eguneko eta gaueko zentroak. Halaber, esaten da zerbitzu horietakoren bat ematea ezinezkoa bada, dirulaguntza emanen dela, salbuespen gisa. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Zenbat lanpostu sortu dira Nafarroan mendekotasuna zenbatetsi eta onartu zaien pertsoneri laguntzeko?

Iruñean, 2009ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Gune Publikoak Arrazionalizatzeko Plan Estrategikoari buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Gune Publikoak Arrazionalizatzeko Plan Estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aman-

da Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Zioak

2007ko abenduaren 14an, Parlamentuko Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen Gobernuari eskatzea sei hilabeteko epean gune publikoak arrazionalizatzeko plan estrategiko bat presta zezan.

Plan hori aurkeztu ez denez, hau jakin nahi dut:

Kontseilariak ba al du asmorik plan hori aurkezteko? Noiz? Zergatik ez da eskatutako epean aurkeztu?

Iruñean, 2009ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Nafarroako Gobernuak Baztan Ikastolari 2008ko aurrekontu-ekitaldian, kontzeptu guztiengatik, emandako diruari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Baztan Ikastolari 2008ko aurrekontu-ekitaldian, kontzeptu guztiengatik, emandako diruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zenbat diru eman dio Nafarroako Gobernuak Baztan Ikastolari –9 unitate ditu– 2008ko aurrekontu-ekitaldian kontzeptu guztiengatik (irakasleak, eskolaz kanpoko jarduerak, garraioa, jantokia...)?

Iruñean, 2009ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Iberbanda enpresak Nafarroa iparraldean dituen arazoei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Iberbanda enpresak Nafarroa iparraldean dituen arazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Iberbanda banda zabaleko telekomunikazioetako eta telefoniako enpresa arazoak edo bezeroei

ematen dien zerbitzuaren etenaldiak izaten ari da Nafarroako iparraldean, eta enpresak dioenez, horren arazoia da matxurak izan direla errepikagailuetan. Iberbanda enpresak hilabete darama arazo horiek izaten, eta ezin die Internet eta telefoniako zerbitzu egokia eman Nafarroako eskualde horretako bezeroei.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Nafarroako Gobernuak ba al du Iberbandaren mendialdeko bezeroak jasaten ari diren arazo eta zerbitzu etenaldien berri?

2. Zein dira egiazki arazo edo zerbitzu-etenaldi horien arazoia?

3. Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak arazo horiek saihesteko?

4. Nafarroako Gobernuak eskatu behar al dio Iberbanda enpresari fakturen zenbatekoa itzul diezaien eta kalteordainak eman diezazkien Internet eta telefoniako bezeroei eta erabiltzaileei zerbitzurik ez emateagatik?

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak, beste departamentu batzuekin batera, gure erkidegoko turismo sektorea sustatze aldera abiarazitako ekimenei eta ekintzei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak, beste departamentu batzuekin batera, gure erkidegoko turismo sektorea sustatze aldera abiarazitako ekimenei eta ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezazkion:

Zeintzuk dira Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak, beste departamentu batzuekin batera, abiarazi dituen ekimen eta ekintza guztiak, gure erkidegoko turismo sektorea sustatze aldera?

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean.

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua krisiari aurre egite aldera turismo sektoreari dagokionez hartzen ari den neurriei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua krisiari aurre egite aldera turismo sektoreari dagokionez hartzen ari den neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezazkion:

Zeintzuk dira Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua krisiari aurre egite aldera hartzen ari den neurriak turismo sektoreari dagokionez?

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Irabia ikastetxeak beste ikastetxe bat eraikitzeari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Irabia ikastetxeak beste ikastetxe bat eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Hedabideetan zenbait berri agertu dira ikastetxe berri bat eraikitzeari buruz edo Irabia ikastetxearen nesken beste atal bat egiteari buruz. Berri horiek kontraesanen bat agertzen dute.

Azaldu ziren lehen informazioen arabera, Irabia ikastetxeak Antsoainen ezartzeko asmoa zuen, eta horretarako udalaren xedapena falta zen. Geroago agertutako informazioen arabera, sustatzaileak soilik falta dituzte, baina badute ikastetxe segregazionista egiteko lizentzia, administrazio-isiltasunaren bidez lortua.

Iragan asteburuan agerturiko informazioek zioten Donapeako Plana izeneko udalez gaindiko eraginari buruzko plan sektorialean badagoela 9.330 metro koadroko lurzati bat hezkuntza arloko azpiegitura pribatuetarako.

Udalez gaindiko eraginari buruzko plan sektorial bat dagoenez, Gobernuak horren berri izan behar du. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

- Zer informazio dauka Gobernuak hezkuntza arloko azpiegitura pribatu horri buruz?

- Irabia ikastetxeak egin al du eskaerarik etorkizunean Donapea Planean ikastetxe bat egiteko?

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari 255/2007 Foru Dekretuari jarraikiz kontratuen arloan transferitu beharreko eskumenei buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari 255/2007 Foru Dekretuari jarraikiz kontratuen arloan transferitu beharreko eskumenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zioak

255/2007 Foru Dekretuaren bidez, Lehendakaritza Departamentura eskualdatu zen laguntzarako kontratuak eta telekomunikazioei, segurtasuna-

ri eta abarrei buruzko kontratuak egiteko eskumena, eta, hala, aldatu egin zen ordura arte indarrean zegoen araudia, alegia 173/2004 Foru Dekretutan jasotakoa.

Urtebete baino gehiago iragan da aipatu foru dekretua indarrean sartu zenetik, eta Zerga Ogasuneko zuzendariaren 1253/2008 Ebazpena argitaratu denez, hauxe jakin nahi dut:

1. Departamentuak ba al ditu berezko baliabideak eskumen horiek bere gain hartzeko? Hala bada, zer aldaketa egin dira departamentuan, halakorik egin bada, eginkizunen eta lanen esleipenari eta giza baliabideen eta baliabide materialen antolamenduari dagokienez, 255/2007 Foru Dekretua betetze aldera?

2. Zenbat kontratu egin dira, zer motakoak, zer helbururekin, zein prozeduraren bidez eta zer baliabiderekin, aipatu foru dekretutik eratorritako enkarguak betetzeko? Zenbat daude bete gabe?

3. Erabakirik hartu al da hirugarrenei esleipenak egiteari buruz edo beste entitate publiko edo pribatuei enkarguak egiteari buruz aipatu foru dekretutik eratorritako enkarguak betetzeko? Kasua bada, zenbat, zer helbururekin eta nor izan da esleipen-hartzailea?

4. Eskumen hori bere gain hartzeak ba al dakarkio gasturik departamentuari? Hala bada, zenbatekoa eta zer kontzepturengatik?

Iruñean, 2009ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Legegintzaldi honen hasieratik hona % 1 kulturala programara aurkeztutako jarduera-proiektuei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Legegintzaldi honen hasieratik hona % 1 kulturala programara aurkeztutako jarduera-proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zioen azalpena

Nafarroako Foru Hobetzeko 44. artikulua arabera Nafarroak eskumen osoa du arlo hauetan: kultura, ondarea, artxiboak, liburutegiak, museoak eta arte ederren sustapenarekin eta irakaskuntzarekin zerikusia duten erakundeak. Edonola ere, arau horrek berak ezartzen duenez, kulturaren arloko eskumena "Estatuarekin koordinaturik" gauzatuko da.

Bestalde, Espainiako ondare historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, 68. artikuluan, % 1 kulturala izeneko sustapen neurria jasotzen du; neurri hori errege dekretuetan eta aginduetan garatu izan da.

Sustapen-neurri hori dela-eta Nafarroako Gobernua zer ekimen egiten ari den jakite aldera honakoen berri izan nahi dugu:

Galderaren testua

- Legegintzaldia hasi zenetik % 1 kulturala programara aurkeztutako eta zuzenean foru administrazioarekin zerikusia duten jarduera-proiektuak.

- Onartutako proiektuak eta emandako laguntzaren hasierako zenbatekoa.

- Baztertutako proiektuak eta emandako arrazoiak.

Iruñean, 2009ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzaren Ebazpena, 2009ko martxoaren 2koa, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisitak eta lan bilerak egiteko moduaren gaineko arauak, 2008ko martxoaren 10eko Lehendakartzaren Ebazpenaren bidez onetsiak, aldatzen dituen.

Lan bilerak egiteko moduaren gaineko arauak onetsi zirenetik urtebete iragan da, eta izandako esperientzia ikusirik, komenigarria da arau horiek egokitzea deialdi bakoitzean sar daitezkeen lan bilera kopuruari eta agerraldi bakoitzaren gehieneko iraupenari dagokienez.

Horretarako, Eledunen Batzarrak aldez aurretik erabakia hartuta eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, EBATZI DUT:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisiten eta lan bileren arauetako lehenaren 5. idatz-zatiaren c) letra aldatzea. Hona hemen testu berria:

“c) Agerraldia eginen duten pertsonen kopurua gehienez ere bostekoa izanen dela eta agerraldiak ordubete iraunen duela gehienez ere.”

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisiten eta lan bileren arauetako lehenari idatz-zati bat, 6.a, gehitzea. Hona hemen testua:

“6. Kasuan kasuko batzordearen deialdian, gehienez ere, lau lan bilera sartuko dira.”

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisiten eta lan bileren arauen aldaketa hau indarrean sartuko da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko Funtzionarioen Opor, Lizentzia eta Baimenen Erregelamendua.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2009ko urtarrilaren 28an eta otsailaren 9an onetsitako Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lan egiten duten funtzionarioen Langile Batzordearen arteko 2008-2011 eperako Hitzarmenaren 4., 5. eta 6. idatza-zatiak eta Eranskina, Opor, Lizentzia eta Baimenen Erregelamendu proiektuari buruzkoak, eta aipatu hitzarmenaren 11. idatza-zatia, erregelamendu horren aplikazioari eta garapenari buruzkoa.

Ikusirik hitzarmen horren 10. idatz-zatia eta 2004-2007 urteetarako hitzarmenaren 8. idatz-zatia.

Ikusirik legelari nagusiaren txostena eta, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 27. artikuluekin eta lehen xedapen gehigarriarekin bat, Langileen Batzordeari entzun ondoren, ERA-BAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onestea. Testua erabaki honekin batera doa.

2. Erabaki hau eta onetsitako erregelamendua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezen agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko Funtzionarioen Opor, Lizentzia eta Baimenen Erregelamendua

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Erregelamenduaren xedea.

Erregelamendu honen xedea da Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan aurreikusitako oporrak, lizentziak eta baimenak arautzea. Langileen Estatutua Erregelamendu Batzordeak onetsi zuen, 1991ko martxoaren 20an eginiko bilkuran.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

Erregelamendu hau Nafarroako Parlamentuko funtzionarioei aplikatuko zaie.

3. artikulua. Opor, lizentzia eta baimenen araubidea.

1. Erregelamendu honetan aipatzen diren oporrak, lizentziak eta baimenak Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiak emanen ditu, kasuan kasuko zerbitzuburuak aldeztatik txostena egin eta gero, salbu eta 14. artikuluan ezarritako kasuan.

2. Oporrak, lizentziak eta baimenak ematean zaindu egingen dira zerbitzuaren beharizanak.

II. KAPITULUA Oporrak

4. artikulua. Oporren iraupena.

Funtzionarioek, zerbitzu aktiboko urtebete bakoitzeko, eskubidea izanen dute hogeita zazpi lanegun opor –soldatadunak– hartzeko, edo zerbitzu-aldia gutxiagokoa izan bada, proportzionalki dagozkien egun kopurua.

5. artikulua. Oporren araubidea.

1. Oporrak urte natural bakoitzean hartu behar dira, baina oporrak hartzeko epea hurrengo urteko urtarrilaren 31ra arte luzatu ahalko da, 3. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren salbuespen gisa, funtzionarioek eskubidea izanen dute opor egunak pilatzeko, erregelamenduan aurreikusitako erditzeagatik eta haurrak adoptatu edo harteagatik lizentzien eta lanaldi osoko aitatasun edo bularra emateagatik baimenen ondoren, nahiz eta amaituta izan opor horiei dagozkien urte naturala.

3. Opor horiek hartzen ez dituzten funtzionarioek ez dute diru-ordainik izanen non eta ez hartzea zerbitzuko beharregatik izan ez den.

4. Oporretako hogeita zazpi egunak bi multzotan banatzen dira: lehendabizikoa hamabi egunekoa da, eta urte osoan zehar batera nahiz banaka hartu ahalko dira; bigarrena hamabost egunekoa da, eta urtarrilean edo uztailaren 1etik irailaren 15era bitarte hartu behar dira. Hamabost egun horiek hiru multzotan banatu ahalko dira.

5. Opor egunak eta norberaren gauzetarako baimenekoak batera hartu ahalko dira.

6. artikulua. Oporrak etetea.

Funtzionario bat oporretan dagoela eritzen bada, haren oporraldia ez da hortaz etenen, non

eta istripu edo gaitz horren ondorioz lau egun baino gehiago ospitaleratuta egon beharrean gertatzen ez den edo mediku batek eritasun larri edo oso larriaren irizpena ematen ez dion (ospitaleratu ala ez); hori behar diren osasun-ziurtagirien bidez frogatu beharko da.

Kasu horietan, oporen etena ospitaleratzearen edo eritzearen lehenbiziko egunean hasiko da.

III. KAPITULUA Lizentzia soldatadunak

7. artikulua. Azterketa ofizialak egiteko lizentzia soldataduna.

1. Zilegi izanen da lizentzia soldatadunak ematea azken azterketetara eta ikastetxe ofizialeko behin betiko bestelako gaitasun eta ebaluazio probetara aurkezteko, ezinbestekoa den denborarako.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren lizentziak eman zaizkien funtzionarioek Zerbitzu Orokorretako buruari aurkeztu beharko diote azterketa edo proba horiek egin dituztela adierazten duen frogagiria.

8. artikulua. Ezkontzagatiko edo bikote egonkorra osatzeagatiko lizentzia soldataduna.

1. Funtzionarioek hamabost egun naturaleko lizentzia soldataduna jasotzeko eskubidea izanen dute, baldin eta ezkondu edo bikote egonkorra osatzen badute.

2. Ezkontza frogatzeko, familia liburua edo erregistro zibileko ziurtagiria aurkeztu beharko dio funtzionarioak Zerbitzu Orokorretako buruari. Bikote egonkorra osatu izana kreditatzeko, aski izanen da zuzenbidean onartutako edozein frogia.

3. Ezkontzeak edo bikote egonkorra osatzeak ez du inola ere sortuko pertsona berak behin baino gehiagotan baliatu ahal izatea artikuluhonetan araututako lizentziak.

9. artikulua. Erditzeagatiko lizentzia soldataduna.

1. Emakume funtzionarioek, erditzen direnean, etenik gabeko hamazazpi asteko lizentzia soldataduna izateko eskubidea izanen dute. Lizentzia hori bi aste gehiagokoa izanen da, baldin eta seme-alabak ezgaitasunen bat badu edo, erditze multipleen kasuan, seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik aitzina. Lizentzia-aldia interesdunaren nahieran banatuko da, baina sei aste nahitaez izanen dira erditzearen ondo-ondokoak. Ama hilez gero, aitak baliatu ahalko du lizentzia, osorik edo, kasu bada, gelditzen den zatia. Seme-alaba hilez gero, lizentzia-aldia ez da murriztuko, salbu eta, nahitaez hartu beharreko sei asteko atsedenaldira bukatuta, amak lanera itzultzea eskatzen badu.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, eta erditu ondoan amaren atsedenerako nahitaez sei aste hartu beharra galarazi gabe, bai aitak eta bai amak lan egiten duten kasuetan zilegi izanen da aitak erditzearen ondoan hartzea atsedena aldiaren parte jakin eta jarraitu bat, dela amarekin batera nahiz ondotik. Aitak hasiera batean lagatako lizentzia-aldia baliatzen jarraitu ahalko du, nahiz eta ama lanera itzuli beharreko unean aldi baterako ezintasun egoeran egon.

3. Garaiz aurreko erditzeen kasuan eta zeinahi arrazoi dela-eta jaioberriak erditzearen ondotik ospitaleratuta egon behar duen kasuetan, lizentzia handitu egingen da, jaioberria zenbat egun dagoen ospitaleratuta, horrenbeste, eta gehienez ere hamahiru aste gehiago.

4. Bi gurasoek aldi berean hartzen badituzte atsedenaldirik, ez da zilegi bien atsedenaldirik artean aurreko idatz-zatietako hamazazpi asteak baino gehiago izatea, edo seme-alabaren ezgaitasun kasurako edo erditze multiplearen kasurako agindu dena baino.

5. Amatasun lizentziaren eskaerari txosten bat erantsi beharko zaio, zeinaren bidez justifikatuko baita haurdunaldia ehun eta lauorogei egun baino gehiagokoa izan dela. Erditzea zein egunetan izan den frogatzeko, familia liburua edo erregistro zibileko ziurtagiria aurkeztu beharko zaio Zerbitzu Orokorretako buruari.

6. Lizentzia honek dirauen bitartean administrazioak deitutako prestakuntza ikastaroetan parte hartu ahalko da.

10. artikulua. Haurren adopzio edo harrerarako lizentzia soldataduna.

1. Adopzio edo harrera kasuetan –harrera adopzio aurrekoa nahiz iraunkorra edo sinplea izan–, lizentzia etenik gabeko hamazazpi astekoa izanen da. Lizentzia hori bi aste gehiagokoa izanen da, baldin eta adoptatu edo hartutako adingabeak ezgaitasunen bat badu edo, adopzio edo harrera multipleen kasuan, seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik aitzina.

2. Epea zenbatzen hasiko da, funtzionarioak hala erabakita, harrerari buruzko erabaki administrazio botik edo judizialek aitzina edo adopzioa eratzeko ebazpen judizialek aitzina, baina adingabe batek inola ere ez du sortuko eskubidea artikuluhonetan araututako lizentziatarik bat baino gehiagoko baliatzeko.

3. Bai aitak eta bai amak lan egiten dutenean, lizentzia interesdunek nahi duten bezala banatuko da, aldi berean edo hurrenez hurren, eta betiere zati jarraituetan.

4. Nazioarteko adopzio edo harrera kasuetan, gurasoek adopzioan hartuko duten haurren jatorrizko herrialdera joan beharra dutenean, aurreko idatz-zatietako kasu bakoitzerako aurreikusitako lizentzia adopzioari buruzko ebazpena edo harrerari buruzko erabaki administratibo edo judiziala eman baino lau aste lehenagotik ere hasi ahal izanen da. Halaber, kasu horietan bi hilabete bitarteko baime naz gozatzeko eskubidea izanen da, epe horretan oinarritzko lansariak bakarrik jasoz, betiere.

5. Bi gurasoek aldi berean hartzen badituzte atsedenaldiok, ez da zilegi bien atsedenaldiek, batera, aurreko idatz-zatietako hamazazpi asteak baino gehiago egitea, edo adoptatutako adingabeak ezgaitasuna duen kasurako edo adopzio edo harrera multiplean kasurako ezarritakoa baino.

6. Artikulu honetan aurreikusitakoari dagokionez, adopzioak edo harrerak –harrera adopzio aurrekoa nahiz iraunkorra edo sinplea izan–, horiek arautzen dituen araudiaren arabera izanen dira; harrera sinpleak, berriz, urtebetetik gorakoa izan beharko du.

7. Lizentzia honek dirauen bitartean administrazioak deitutako prestakuntza ikastaroetan parte hartu ahalko da.

11. artikulua. Erditzeagatiko lizentzia soldataduna edo adopzio edo harrerako lizentzia soldataduna lanaldi partzialean hartzea.

1. Aurreko artikuluetan ezarritako lizentzia soldataduna, erditzeagatikoa edo adopzio edo harrerakoa, lanaldi partzialean hartzen ahalko da, arau hauei jarraikiz:

a) Baimen hori lanaldi partzialean hartu ahal izateko, beharrezkoa izanen da interesdunak alde aurretik eskatzea, kasuan kasuko zerbitzuburuak txostena egitea eta legelari nagusiak ebazpena ematea, eta baldintza izanen du, kasua bada, hura egiazki ordeztzea.

b) Lanaldiaren herenakoa edo erdikoa izan ahalko da lizentzia.

c) Oro har, lizentzia hau egunero baliatzea izanen da eta langilearen lanaldiaren lehenbiziko eta/edo azken orduak hartuko ditu, betiere zerbitzuaren beharren arabera.

2. Lanaldi partzialeko lizentzia honen iraupena ebazpenean zehaztuko da, eta etenik gabe luzatuko da bukatu arte. Hori, dena dela, ez da eragozpen izanen erditzearen kasurako hurrengo idatz-zatian xedatutakoa betetzeko.

3. Lanaldi partzialeko baimen hau aitak zein amak hartzen ahal dute. Biek hartuz gero baimena

aldi berean har dezakete edo bata besteara bukatzen denean.

Erditzearen kasuan, amak ezin izanen du hala-ko baimenik hartu umea jairo ondoko lehenbiziko sei asteetan, nahi eta nahiezko atsedenaldia baita amarentzat.

4. Funtzionarioak, lanaldi partzialeko baimenaz baliatzen ari den bitartean, ezin izanen du inola ere ordu estrarik egin, ez eta bere lanaldi berritik kanpoko inongo zerbitzurik ere.

5. Lanaldi partzialeko lizentzia hau eta ondoko eskubideak aldi berean baliatzea bateraezina da funtzionarioarentzat:

a) Erregelamendu honetako 16. artikuluan aurreikusitako baimen soldataduna, hots, hamabi hilabetez behetiko haurra edoskitzeko baimena.

c) Erregelamendu bidez ezarritako lanaldiaren murrizketetako edozein.

12. artikulua. Haurdunaldia arriskuan egoteagatiko lizentzia soldataduna eta edoskitze naturala.

Emakume funtzionario baten lanpostuko baldintzek eragin negatiboa izan baldin badezakete emakume haurdunaren nahiz haren seme-alabaren osasunean, lizentzia soldataduna eman ahal-ko zaio haurdunaldia arriskuan egoteagatik, lane-ko arriskuei aurrea hartzeari buruzko araudian ezarritako modu eta baldintzekin.

Arestiko lerrokadan xedatutakoa orobat aplikatuko da edoskitze naturalak dirauen bitartean.

IV. KAPITULUA Norberaren gauzetarako lizentzia soldatagabeak

13. artikulua. Norberaren gauzetarako lizentzia soldatagabeen iraupena eta araubidea.

1. Zilegi izanen da norberaren gauzetarako lizentzia soldatagabeak ematea, osotara bi urte naturaletan gehienez bost hilabete osatu artekoak.

2. Artikulu honetan aipatutako lizentziak eskatzen badira, arrazoitu egin beharko da eskaera, eta, betiere, zerbitzuaren beharizanen menpe egonen da lizentzia eman ala ez.

14. artikulua. Norberaren gauzetarako lizentzia soldatagabeen araubidearen berezitasunak.

Norberaren gauzetarako lizentzia soldatagabeen iraupena bi urte naturaletan bost hilabete osatu artekoa izan ahalko da. Lizentzia emateko, ondoko arauak bete beharko dira:

a) Eskaera arrazoitu egin beharko da.

b) Lizentzia hau eskatzeko ez da beharrezkoa izanen oporrak aurretik ahiturik izatea.

c) Lizentzia-ematea, betiere, zerbitzuaren beharrezko menpe egonen da, salbu eta eska-tzaileak lizentzia baliatzen hasi aurretik ordezkoa jarria badu. Lizentzia Mahaiaren erabaki bidez emanen da, Zerbitzu Orokorretako eta kasuko zer-bitzuko buruek txostena egin eta gero.

d) Lizentzia ukatzen baldin bada, ukatzeko arrazoiak azaldu beharko dira.

e) Soldata gabeko lizentzian egondako denbo-rak ez du opor eskubiderik sortuko eta beraz kon-zeptu hori ez da kontuan hartuko egin behar den soldata deskontuan, salbu eta opor horiek lehen-dik hartu badira.

V. KAPITULUA

Lizentzia soldatadunak

15. artikulua. Aitatasun-lizentzia soldataduna.

1. Hamabost egun naturaleko baimen soldata-duna emanen zaio aitari seme-alaba jaio, hartu edo adoptatzeagatik. Baimena baliatuko da jaiote-gunetik, harrerari buruzko erabaki administratibo edo judizialaren egunetik edo adopzioa eratzeko ebazpen judizialaren egunetik aitzina.

2. Aipatu baimena 20 egun naturalekoa izanen da jaiotza, adopzioa edo harrera familia ugari batean gertatzen bada, baldin eta jaiotza, adopzio edo harrera horren ondorioz familiak familia ugari-aren izaera hartzen badu, edota familiako kide batek ezgaitasunen bat baldin badu.

3. Ume bat baino gehiago jaio, adoptatu edo hartzen direnean, edota horietakoren batek ezgai-tasunik badu, aurreko idatz-zatietan adierazitako baimenak beste bi egun natural iraunen du biga-rrenetik aurrerako haur bakoitzeko.

4. Baimen hau ez dago lotuta erregelamendu honetako aurreko artikuluetan aurreikusten diren erditzeagatik eta haurrak adoptatu edo hartzea-gatik lizentzia soldatadunak batera baliatzeare-kin.

5. Bateragarri dira aitatasun-lizentzia soldata-duna eta jaioberria ospitalean sartu behar izatea-gatikoa, bi baimenetarako baldintzek bat egiten dutenean eta aldi berean gertatzen badira.

16. artikulua. Hamabi hilabetez beheitiko hau-rra edoskitzeko baimen soldataduna.

1. Hamabi hilabetez beheitiko haurra duten fun-tzionarioek eskubidea izanen dute egunean ordu-betez lantokitik alde egiteko. Funtzionarioak hala erabakiz gero, ordubeteko tarte hori hiru ordu laur-

deneko bi zatiki bihur ditzake, edo, bestela, lanal-dia ordu erdi murriztu ahalko du lanaldiaren hasie-ran eta amaieran, edo ordubete lanaldiaren hasie-ran edo amaieran. Hautaera hori soilik ukatu ahalko da, salbuespenez eta arrazoituta, baimena emateak zerbitzuaren funtzionamenduari traba handia egiten dion kasuetan.

2. Baimen hori proportzionalki handituko da erditze multiplearen kasuetan.

3. Baimen hori aitak zein amak baliatu ahalko du, baldin eta biek lan egiten badute.

4. Bateriaezinak izanen dira edoskitzeko baimena eta aitak nahiz amak erditzeagatik eta haurrak adoptatu edo hartzeagatik lizentzia nahiz errege-lamendu bidez ezarritako edozein lanaldi murriztu baliatzea.

5. Interesdunek eskatu ahalko dute edoskitzeko denbora pilatzea eta lanaldi osoko baimen solda-tadun bihurtzea, zeina erditzeagatik eta haurrak adoptatu edo hartzeagatik lizentziaren ondoren baliatuko baita.

17. artikulua. Ernalketa lagunduko tekniketara-ko baimen soldataduna.

Emakume funtzionarioek eskubidea izanen dute ernalketa lagunduko tekniketarako ezinbeste-koa den denboraz lanetik ateratzeko, betiere alde z aurretik justifikatuz gero tratamendua lanaldian egin beharra.

18. artikulua. Jaio aurreko azterketak egiteko eta erditzera prestatzeko tekniketan trebatzeko baimen soldataduna.

Zilegi izanen da baimen soldatadunak ematea funtzionario emakumezkoiei jaio aurreko azterke-tak egiteko eta erditzera prestatzeko tekniketan trebatzeko, lanaldian egin beharrekoak direnean.

19. artikulua. Garai aurreko seme-alabak jaiotzeagatik baimena.

Garaia baino lehen jaiotzeagatik edota beste edozein arrazoiengatik erditzearen ostean hau-rrek ospitalean egon beharko balute, funtzionario-ak eskubidea izanen du lanetik ateratzeko egune-an bi orduz gehienez, ordainsari osoak jasota. Halaber, eskubidea izanen dute lanaldia gehienez ere bi orduz murrizteko, bere ordainsariak propor-tzio berean murriztuta.

20. artikulua. Baimen soldataduna, generoko indarkeria dela eta.

Generoko indarkeriaren biktima diren funtzio-narioek lanera huts egiteak –osoak nahiz partzia-lak– justifikatutzat hartuko dira, osasuneko edo

laguntzako gizarte zerbitzuek kasuan-kasuan ezarritako baldintzetan eta denboran.

21. artikulua. Hezkuntza bereziko ikastetxeetan tratatutako seme-alabei laguntzeko baimen soldataduna.

Legez onartutako ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenetakoa duten seme-alabak dituzten langileek zilegi dute lanetik ateratzea, tratamendua ematen zaien hezkuntza bereziko ikastetxeetako koordinazio bileretan parte hartzeko edo osasun esparruan laguntza gehigarria jaso behar badu, hara laguntzeko.

22. artikulua. Ahaide baten heriotzagatiko baimen soldataduna.

1. Lau egun naturaleko baimen ordaindua emanen da ezkontidea edo bizikidea eta odolbidezko lehen mailako ahaideak hiltzen direnean, heriotza Nafarroako Foru Komunitatean gertatzen bada, eta bost egunekoa handik kanpora gertatuz gero.

2. Hiru egun naturaleko baimen soldataduna emanen da ezkonbidezko lehen mailako ahaideak eta senideak hiltzen direnean, heriotza Nafarroako Foru Komunitatean gertatzen bada, eta lau egunekoa handik kanpora gertatuz gero.

23. artikulua. Ahaide baten gaixotasunagatiko baimen soldataduna.

1. Baimen soldataduna emanen da ezkontidea edo bizikidea eta odolbidezko lehen mailako ahaideak ospitalean bost egun baino gehiagoko egonaldia egin beharrean daudenean edo irizpen medikoa (ospitalean egon ala ez) eritasun larria edo oso larria denean; baimena lau egunekoa izanen da gertaera Nafarroako Foru Komunitatean gertatzen bada, eta bost egunekoa handik kanpora gertatuz gero.

2. Ezkontidea edo bikotekide egonkorra edota odolbidezko lehen mailako ahaide bat zaindu behar izateagatik, gaixotasun oso larria dela-eta funtzionarioak eskubidea izanen du lanaldi erdirainoko murrizketa soldataduna eskatzeko, urtean hilabete batez gehienez ere. Eskubide horren titular bat baino gehiago badago gertaera beragatik, murrizketa horren denbora titularkideen artean banatu ahalko da, betiere hilabeteko gehieneko epea errespetatuta.

3. Baimen soldataduna emanen da ezkonbidezko lehen mailako ahaideak edo senideak ospitalean bost egun baino gehiagoko egonaldia egin beharrean daudenean edo irizpen medikoa (ospitalean egon ala ez) eritasun larria edo oso larria denean; baimena hiru egunekoa izanen da gertae-

ra Nafarroako Foru Komunitatean gertatzen bada, eta lau egunekoa handik kanpora gertatuz gero

4. Ospitaleko egonaldiak hori baino gutxiago irauten badu, edo irizpen medikoa pronostiko erreserbatuko eritasuna edo eritasun ez hain larria delarik, baimen ordaindua egun batekoa izanen da gertaera Nafarroako Foru Komunitatean denean eta bi egunekoa handik kanpora denean.

5. Aurreko idatz-zatietan aurreikusi diren eritasun edo ospitaleratze kasuetan, zilegi izanen da kasuan-kasuan, ospitaleratzea edo eritasuna zein egunetan hasi den kontuan harturik, ateratzen den egun kopurua eritasunak edo ospitaleko egonaldiak irauten duen guztian hartzea, betiere zerbitzua- ren beharrek hartarako bide ematen duten heinean.

24. artikulua. Ahaideen heriotzagatiko edo eritasunagatiko bestelako baimen soldatadunak.

1. Egundateko baimen soldataduna emanen da 22, 23.1 eta 23.3 artikuluetan ezarritako arrazoi berengatik artikuluhorietan aipatzen ez diren odolbidezko nahiz ezkonbidezko bigarren mailako ahaideen kasuan, baldin eta gertaera Nafarroako Foru Komunitatean izan bada, eta bi egunekoa handik kanpora agitu bada.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako baimena hartzeko, erregelamendu honetako 23.5 artikuluan ezarri diren arau berak hartuko dira aintzat.

25. artikulua. Ahaideen gaixotasunagatiko baimen soldatadunen muga.

23. artikuluan ezarritakoa gorabehera, ez da erregelamendu honen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako baimen soldatadunik emanen harik eta gutxienez hilabetea iragan bitarte subjektu bera eta arrazoi bera direla medio emandako baimena bukatzen denetik. Betiere, subjektu bera eta arrazoi bera direla medio baimen soldatadun bakarra eman ahalko da, nahiz eta baimena emateko arrazoiak bere horretan iraun.

26. artikulua. Ahaideen kirurgia handi anbulatorioagatiko baimen soldataduna.

1. Bi egun naturaleko baimen soldataduna emanen da ezkontide edo bizikideari, seme-alabei edo gurasoei kirurgia handi anbulatorioa egin behar zaien kasuetan.

2. Kasu horietan, kirurgia anbulatorio handizat hartuko dira eriak operazioaren egun berean etxera itzultzen diren prozedura kirurgikoak, zein ere anestesia klase aplikatu zaien eta operazioak zenbat ere iraun duen.

27. artikulua. Aldaira egiteko baimen soldataduna.

Egun natural bateko baimen soldataduna emanen da aldaira egiteko.

28. artikulua. Ezinbesteko eginbehar publiko nahiz pertsonal bat egiteko baimen soldataduna.

Baimen soldatadunak eman ahalko dira ezinbesteko eginbehar publiko nahiz pertsonal bat egiteko, eginbehar hori lanaldian egin beharra alde aurretik justifikatuz gero.

29. artikulua. Hauteskundeetan hautagai izateagatik baimen soldataduna.

Funtzionario bat hauteskundeetan hautagai baldin bada –Europako Parlamenturako hauteskundeak, Gorte Orokorretako diputatu eta senatoriak hautatzekoak, Nafarroako Parlamentukoak edo autonomia erkidego bateko beste legebiltzar baterakoak eta toki korporazioetakoak–, zilegi izanen da hauteskunde kanpainaren denboran lan egin beharretik salbuetsita egotea, hartarako behar den baimen soldataduna eskatu eta hori eskuraturik.

30. artikulua. Norberaren gauzetarako baimen soldataduna.

Urtean zehar, arestiko artikuluetan jaso gabeko norberaren gauzetarako, funtzionarioek hiru lane-guneko baimen soldataduna baliatzeko eskubidea izanen dute, edo proportzioan dagokien egunetako, baldin eta zerbitzu emandako denbora urtebetetik beheitikoa izan bada. Baimen hori baldin eta zerbitzuaren beharrezanek horretarako bidea ematen badute.

Langile baten lanaldiaren banaketa oro har ezarritakoaz bestelakoa baldin bada, kasuan kasuko baimen-egunak doituko zaizkio, kasuan-kasuan ezarrita duen lanaldiaren iraupenaren arabera hain zuzen ere.

31. artikulua. Baimen soldatadunen justifikazioa.

Erregelamendu honetako 15etik 29ra bitarteko artikuluetan araututako baimen soldatadunak eskatzen dituztenek Zerbitzu Orokorretako buruari aurkeztu beharko dizkiote baimena baliatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituztela frogatzeko agiriak.

32. artikulua. Bikote egonkorak.

Erregelamendu honetan arautzen diren lizentzia eta baimenetarako, ezkontidetzat hartzen dira bikote iraunkor bateko kideak, Bikote Iraunkorren Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeak agintzen duen moduan.

Xedapen iragankorrak

Xedapen iragankor bakarra. Erregelamendua aldi baterako aplikatzea lizentzia eta baimen indardunei.

Erregelamendu honetan jasotzen diren aurreikuspenak erregelamendua indarrean sartu aurretik hasitako lizentziei eta baimenei aplikatuko zaizkie, baldin eta bukatu gabe badaude indarrean sartzen den egunean, eta soilik lizentzia edo baimena baliatzeko falta den denborarako.

Azken xedapenak

Azken xedapenetan lehena. Erregelamenduen garapena eta aplikazioa.

Legelari nagusiari ahalmena ematen zaio beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan erregelamendu hau garatzeko eta aplikatzeko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Erregelamendu honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

